


EUSKARAREN HERRI HIZKEREN



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



LABORAL
kutxa

Mitxelenaren oharrak



... la zona de habla vasca [...] sigue siendo un espacio en blanco, una terra incognita cerrada a la cartografía lingüística...

... para quien no conozca en detalle los distintos aspectos de la cuestión, tiene que resultar extraño y punto menos que incomprensible que un país que se considera próspero y abierto a todo el nuevo, además de pequeño y bien comunicado, se encuentre en esta situación...

Koldo Mitxelena, 1951



Bi baldintza behar dira erdietsi atlas baten egitekotan


- Dominio de los aspectos teóricos y prácticos de la cartografía lingüística
- El modelo de un atlas románico cualquiera, por bueno que sea, no lo sea sin más adaptable de una manera mecánica.
- [El atlas vasco] presenta problemas propios cuya solución está llena de dificultades no menores que las que pueden plantear empresas de gran empeño.

Koldo Mitxelena, 1951

- Un atlas lingüístico vasco que merezca ese nombre

no puede menos de abarcar ambos territorios, el español y el francés, ya que de otra manera vamos a hacer una obra que resultará a todas luces parcial e insatisfactoria.

1.3.1. Inkesta lekuen mapa



Koldo Mitxelena, 1951

Mitxelenak aditzaren galdesortaz

Debo señalar que el cuestionario propuesto para el verbo por Yrizar me parece **claramente excesivo** (169 preguntas) ...

[EHHA VI = 270 preguntas]

Sólo quien lo ha presenciado puede creer que un lingüista con gran experiencia en encuestas sobre el terreno se haya topado con una barrera infranqueable al tratar de conseguir del informador la formas no alocutivas del presente del auxiliar intransitivo, « soy », « eres » etc.

No puede considerarse un acierto el que las preguntas se hicieran de una manera global, identificando lo inidentificable, a riesgo permanente de lanzar a encuestadores y encuestados a una especie de **wild goose chase**.

Koldo Mitxelena, 1951

1332. Mapa: *EDUN [+orain, haiek-hura]

GALDERA: 90760



	daur(i)e / deur(i)e
	daude / deud(i)e
	dab(i)e
	dau(i)e / deue / doue
	debe / dere
	diit(i)e
	dute
	unte
	dai
	dui / duye
	du
	due / dubie
	de
	di
	die

- Erantzunak lortzeko galdera hauek egin dira: "Han comido poco hoy / ils ont mangé peu" eta "han bebido mucho / ils ont bu".

- "Dute" superlemaren barruan "dute", "ute" eta "te" erantzunak sartu dira.

- Mapa txikian "haiek" hirugarren pertsona pluralaren marken ("-e" eta "-te") hedapena erakusten da.

Hainbat herritan erantzun bat baino gehiago jaso da: *yan déure* eta *yan dúe* (Zaratamo); *Eurak gítxi ján debe* eta *Arek beia jote dabenian* (Elgoibar); *Gítxi jan débe, gisón danág bakia náí due* eta *játen dábe* (Mendaro); *Gítxi ján due, ján debé* eta *tratuá in dé* (Zestoa); *gítxi ján due* eta *gítxi ján de* (Errezil); *Oiek oso gutxi jan dute gaur* eta *eznie lanik itten* (Orexa); *óyck ásko ján duyé* eta *dubié* (Arbizu); *Yan dú* eta *Aik etxé ad bauté* (Beruete); *ayék ján dute ásko, esatéute* eta *íteunte* (Etxaleku); *Oyck yán te gutti, Nere semik erosi ute erlojua, Astúk yatén dute belarra* eta *Gizón ók aunitz, yateunte* (Donamaria); *edan duté* eta *bestiak ikhusiz, nola iten düten* (Domintxaine); *die* eta *oai enproena deitzen béitiitie* (Larraine).

1374. Mapa: *EDUN [+orain, hark-hura-hari]

GALDERA: 91240



	dako
	de(i)o
	dea
	do(o)
	dio
	diyo
	yo
	do
	dautze
	((deu)tzo
	((deu)tza
	jao / xau
	nor-nork forma

- Erantzunak lortzeko galdera hauek egin dira: "Le ha vendido una vaca al carnicero / il a vendu une vache au boucher", "esa historia le ha oído al padre / il a entendu cette histoire à son père", "ha dado una casa a su hijo / il a donné une maison à son fils" eta "el cazador ha regalado su perro a su mejor amigo".

- "Dautze" superleman ondoko lemak bildu dira: dautze eta utze.

- "Deutzo" superleman ondoko lemak bildu dira: dautzo, deutzo, dotzo, otzo eta utzo.

- "Dotza" superleman ondoko lemak bildu dira: dotza, etza, eutza eta otza.

- "Nork-nork forma" superleman "du" erantzuna sartu da.

Hondarribia: *Andonik saldu dió bei bat karniseruari eta Andoniri ezíyo ajolikan.*

Barkoxe: *Nuiz jancezi deo oroer?*

1449. Mapa: ERAMAN [+orain, hark-hura]

GALDERA: 92620



	daroia / daroie
	daroa
	darue
	daro
	darama
	derama
	damar(ren)
	deame
	daramaki
	dea
	dabi
	jo(h)an du
	eramaten du
	eramaki du
	eram du

- Erantzunak lortzeko honako galdera hauek egin dira: "Él lleva un perro a casa / il emporte un chien à la maison"; "le berger emporte du vin à la montagne" eta "la charrette emporte une tonne de pierres à chaque voyage".
 - Adizki perifrastikoen banean hiru multzotan bildu dira erantzunak, aspektuari erreparaturaz: "eramaten du", "eram du" eta "eramaki du". Dena dela, horien banean beste aditz batzuetako formak ere jaso dira, adizki trinkoa nekez erabiltzen dutela ikusteko.
 - "Jo(h)an du" superlemaren banean honako erantzun hauek bildu dira: joan dik, joan du, johan du eta juan dik.

Getxo: Berak daró txakur bet etzera.
Aia: Beak etxéa damakí.
Oiartzun: Orrek zakur oi itxea damá.
Hondarribia: Arek emaki dik txakur bat.
Urdiaín: Pédrok líbru bát étxeá deá.
Arbizu: Pédrok txakurrá itxéa dabí.
Erratzu: Nik badámat zakurre etxera.
Azkaine: Bokata burúain gaiñian íbilki du edo erémaki dú.
Hazparne: Aizíak johan du lastoa.
Bardoze: Haizeak yuan dik.
Arnegi: Kasu! Horrek anía badáme (asko edaten duela adierazteko).
Armendaritze: Haizeak badeama.

1469. Mapa: IZAN [+orain, hura, alok.]

GALDERA: 93010



	dok
	don
	dona
	dek
	den
	duk
	dun
	dük
	dün

- Egitasmoaren galdesortan aditzari buruzko 93. gaia aditz alokutiboei eskaini zaie; hots, aditz ekintzan parte hartu ez, baina mintzakideari dagokion morfema ekartzen duten adizkiei. Mapa nagusian toka-nokari dagozkion adizkiak bildu dira. Oro har, gizona mintzakidearen marka duen adizkia bildu da; emakumezkoena ez da beti galdetu eta galdetu den guztietan ez da erantzuna jaso. Ondorioz, gizona emakumezkoenari eman zaio lehentasuna, lehen erantzuntzat hartuz eta mapa-zolan hari dagokion kolorea emanez; emakumezkoena bigarren erantzun gisa bildu da eta mapan marrez irudikatu da. Zuka eta xuka alokutiboak ere bildu dira herri zenbaitetan; batzuetan mapa txikian ezarri dira eta beste batzuetan oharretan zerrendaturik.

- Erantzunak lortzeko honako galdera hauek egin dira: "Él /ella es (joven)", "él /ella se ha ido" eta "errak, Piarres, il est jeune".

- Jasotako erantzunetan, "izan" aditz nagusia zein aditz laguntzailea izan da.
- Mapa txikian zuka eta xukako formak bildu dira. Zuka berdez azaltzen da eta xuka urdinez. Iparraldeko herri guztietan ez da sistematikoki bildu.

Mungia: *Bera etzerá joáten dok jaten.*

Aramaio: *Ori gastie dok.*

Berriz: *Benítta be juan don.*

Kortezubi: *Ori gastie ona.*

Urretxu: *Béa gaztía dék.*

Errezil: *Béa gaztía dén.*

Oiartzun: *Oi gaztía dük.*

Oderitz: *Úe gáztea dón.*

Goizueta: *Ori gáztée dük.*

Hendaia: *Oñon gáztia dük ori.*

Ahetze: *Oi gáztea un.*

Arnegi: *Errak, Piarres, gáztía uk.*

Larraine: *Gázte dük; gázte dún; gázte düzü.*

Montori: *Ene alhaba eztüzü hor.*

1288. Mapa: IZAN [-orain -iragan, hura]

GALDERA: 90160




	balitz
	baliz
	baleis
	balitza
	baze
	bazen
	balitike
	baleitike
	balitake
	bale(s)tike
	balitzike
	balitzake
	balitzateke

- Datuak biltzean maizen erabili diren esaldiak hauek dira: "Si Kepa fuera joven se quedaría con nosotros", "si fuera más viejo no sé si su padre le ayudaría tanto", "s'il était jeune, il resterait avec nous", "s'il était déjà arrivé nous le verrions maintenant".
 - Nafarroako herri batzuetako erantzunetan "balin" aurrekaria agertu da; hala nola Ezkurran, Sunbillan, Etxalarren, Lekarozen edo Erratzun.
 - Herri zenbaitetan jasotako erantzunetan *izan* erabili izan dute edo "izango" (batzuetan sinonimo gisa, beste batzuetan bata edo bestea hobetsiz). Sondikan, esaterako: *Kepa ixengo balitike gasté...*

Zaratamo: *báleis aldaera* herri honetan baino ez da jaso.
Zestoa: *Biyetá (balitzake eta balitz), bálitzaké géyuo, segíru.*
Zilbeti: *bazen* gehiago esaten dela *balitz*; baino dio lekukoak.
Mezkiritz: *izan baze* eta *balitz*; desberdinak direla dio lekukoak, baina berdintsu erabiltzen direla: "*izan baze*" *nik uste obeki dagon*.

1467. Mapa: *IRO [-orain -iragan, hark-hura]

GALDERA: 92850



- li(r)o
- lioke
- lezake
- ten ahal luke
- ten ahal lio

- Erantzunak lortzeko galdera hau egin da: "Cet homme pourrait le faire dès demain".

- "-ten ahal luke" superlemaren banean honako erantzun hauek bildu dira: egiten al luke, eiten ahal luke, irazten aal luke, iten aal likek, iten aal luke, iten ahal likek eta egiten ahal luke.

- "-ten ahal lio" superlemaren banean honako erantzun hauek jaso dira: egiten ahal likiok, ez lio ikusten ahal.

- Zenbait herritan forma alokutiboak jaso arren, superlema neutroen banean bildu dira.

Sara: *Irazten aal luké partida, nai balu.*
 Uztaritze: *Orrek egin lezake edo egin lio.*
 Baigorri: *Bihardanik egin lezake.*
 Irisarri: *Balaki ze erten dik orren kontra, ez lio ikusten aal.*
 Ezterenzubi: *Gizon orrek idaaz lio?*
 Pagola: *Egiten ahal likiok kholpü gaixtua.*
 Altzürüküti: *Nabelak elio motz hua.*

Atlas baten beharraz

Atlas baten beharraz euskarari, eta euskarari ez ezik baita euskaldunen eta Euskal Herriaren izen onari ere, horrenbeste zor diogula esango nuke. Gu bakarrik baikara inguru hauetan biluzgorri eta lotsagarri gelditzen garenak sail horretan. Eta lotsaizunik ez balego ere, gogoan eduki behar genuke zenbat aurreraziko lukeen obra honek hizkuntzaren ezaguera, burutan aterako bagenu inoiz edo behin.

Koldo Mitxelena, 1981



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



Gasteiz, 2015-02-27